



Murrizketak Haurreskoletan Informaziorik ez eta mehatxuak

Azaroaren 4an gauzatutako Mahai Parekideko bileran baieztatu zitzaigun Partzuergoak 8/2010 Errege Lege Dekretutik ondorioztatzen diren murrizketak aplikatuko dituela, eta murrizketa hauek hainbat arlo ukituko dituztela gainera (soldata murrizketa, ordezkapenik eza, ratioen aplikazio “zorrotza”).

Soldaten murrizketari dagokionez, oso gaineke informazioa eman zitzaigun (%1,4ko jaitsiera soldatan eta %1,58koa antzinatasunean). Langileen ordezkari garen heinean ordea, langileoi inposatzen zaizkigun neurri hauen inguruko informazio zehatza exijitzen diogu partzuergoari:

- Murrizketa neurrien aurretik aurrekontuetatik Eusko Jaurlaritzak Partzuergora bideratu zuen diru partidaren zenbatekoa.
- 2010rako Aurrekontu Legearen aldaketa ondoren Eusko Jaurlaritzak Partzuergori eman dion diru partidaren zenbatekoa.
- 2010rako Partzuergoko kide diren udalek Partzuergora zuzendu duten diru kopurua.
- Guztira Partzuergoak 2010rako jasan duen murrizketa bere diru sarreretan.
- Aurrekontuetan jasan den murrizketak zertan duen eragina Partzuergoan, murriztu denetik zenbat kenduko den soldatetatik, zenbat beste alorretatik.
- Soldatetan duen eragin zehatza: murrizketa aurreko soldata-taula eta murrizketa ondorengo soldata taula, noiztik aplikatuko den soldata jaitsiera zehaztuz.
- Ordezkapenik ez gauzatzeak suposatzen duen aurrezkoa Partzuergoarentzat (ordezkoen soldatak ez dira ordaintzen, gizarte segurantzako kotizazioak ez dira ordaintzen, bajaran dauden eta ordezkatzan ez diren langileen soldaten ehuneko bat gizarte segurantzak ordaintzen du, etab).
- Aurrez aipaturiko informazio berdina 2011 urterako.

Espero dugu Partzuergoaren aldetik eskatutako informazioa eman eta garbitasunez jokatu dela.

Informatzen jarraituko dugu!